

BASA Burua

178. ALEA - 2025eko MAIATZA

BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA



www.basaburua.eus
udala@basaburua.eus
948 50 30 35

BEHIN BEHINEKO AURREKONTUAK ONARTU DIRA

Basaburuko Udalak 2025eko behin behineko udal aurrekontuak eta 2024koak onartu zituen apirila bukaeran. Ondoren, publikoki aurkeztu ditu saio irekian, Maiatzaren 16an, Apeztegiberriko lehenengo solairuan. Saio horretara kontzejuetako alkateak eta udal batzordeetako kideak gonbidatu dira, baina, gainera, interesa duen edozein herritarra parte hartzeko aukera izan du. Hurrengo orrian aurtengo behin behineko aurrekontua ikusteko aukera duzue eta baita 2024koa ere. Ekainean onartuko da behin betikoa, baina, ondoren, aldaketak egiteko aukera dago urtean zehar.

SE HAN APROBADO LOS PRESUPUESTOS INICIALES

El Ayuntamiento de Basaburua aprobó los presupuestos iniciales para 2025 y los de 2024 a finales de abril. Los ha presentado públicamente en una sesión abierta ante la ciudadanía, el 16 de mayo en el primer piso de Apeztegiberri. En la sesión ha tenido ocasión de participar cualquier vecino y vecina interesada. Y, además, han sido invitados los alcaldes y las alcaldesas de los concejos y los miembros de las comisiones municipales. En la siguiente página se puede consultar la tabla de los presupuestos iniciales de 2025 y también la de los presupuestos definitivos de 2024. En junio se aprobará el presupuesto definitivo de este año pero pueden producirse cambios a lo largo del ejercicio.



UDAL AURREKONTUAK / PRESUPUESTOS MUNICIPALES:

2024KO AURREKONTUA/ PRESUPUESTO DE 2024:

GASTUAK/ GASTOS	€	SARRERAK/ INGRESOS	€
Langile gastuak/ Gastos de personal	437.400	Zergak/ Impuestos	306.000
Ohiko ondare eta zerbitzu gastuak/ Gastos corrientes en bienes y servicios	308.350	Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak/ Tasas, precios públicos y otros	69.200
Inbertsioak/ Inversiones	713.000	Ondare sarrerak eta ondasun komunalak/ Ingresos patrimoniales y aprovechamientos comunales	40.700
Beste batzuk/ Otros	329.750	Beste batzuk/ Otros	1.395.547
Osotara/ Total	1.788.500	Osotara/ Total	1.811.447

2025eko BEHIN-BEHINEKO AURREKONTUA/ PRESUPUESTO INICIAL DE 2025:

GASTUAK/ GASTOS	€	SARRERAK/ INGRESOS	€
Langile gastuak/ Gastos de personal	498.400	Zergak/ Impuestos	314.500
Ohiko ondare eta zerbitzu gastuak/ Gastos corrientes en bienes y servicios	254.400	Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak/ Tasas, precios públicos y otros	68.619
Inbertsioak/ Inversiones	498.630	Ondare sarrerak eta ondasun komunalak/ Ingresos patrimoniales y aprovechamientos comunales	41.950
Beste batzuk/ Otros	337.661	Beste batzuk/ Otros	1.193.276
Osotara/ Total	1.589.091	Osotara/ Total	1.618.345

ERASO SEXISTEN AURREAN NOLA JOKATU?

Basaburuko Udalak Berdintasun Zerbitzuarekin, eraso sexisten aurrean, lekuko edo arduradun gisa, zer erantzun eman behar den ezartzen duen protokoloa azaltzeko saioa antolatu du. Maiatzaren 29an izanen da, Apeztegierrin, 17:30ean. Lehenengo zatia udal eta kontzeju korporazioei zuzendua izanen da, arduradun gisa eraso baten aurrean eman beharreko pausuak ezagutzeko. Ondoren, ostalariak eta herritarrok batuko zaizkie, erasoak hobeki identifikatzeko tresnak eskaini eta hauen aurrean nola jokatu azalduko zaie. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2018an egin zuen festetako protokoloa, ematen diren erasoen aurrean erantzuna hobetzeko asmoz, eta 2020an berritu zuen.

¿CÓMO DEBEMOS ACTUAR ANTE UNA AGRESIÓN SEXISTA?

El Ayuntamiento de Basaburua con el Servicio de Igualdad han organizado una sesión para explicar el protocolo que establece cómo actuar ante una agresión sexista si eres testigo de una o responsable de la administración. Será el 29 de mayo, en Apeztegierr, a las 17:30. La primera parte estará dirigida a las corporaciones del Ayuntamiento y de los concejos, para que conozcan qué pasos deben seguir como responsables; y, después, a las 18:00, se les podrán unir las trabajadoras de las posadas y los vecinos, a quienes se les ofrecerán herramientas para identificar mejor las agresiones y saber cómo actuar. La Mancomunidad de Servicios Sociales redactó el protocolo de fiestas en 2018, con el objetivo de mejorar la respuesta ante las agresiones. En 2020 lo renovó para adaptarlo a la realidad de aquí.



ESKAERA BERRIAK BASABURUKO ESKOLETAN

Aurrematrikulazio epea amaitu zen dagoeneko Basaburuko Ttikiena haur eskolan eta Oihanabal eta eskaera berriak izan dituzte biek ala biek. Ttikienan pozik agertu dira hamabi eskaera berri izan baitituzte. Ikasturtea hamabi edo hamalau ikaslererekin hasiko dutela eta hamasei eta hemezortzi artean izatera iritsiko direla aurreikusten dute.

Oihanabal, berriz, lau aurrematrikulazio izan dituzte eta, aldi berean, seigarren mailako lau haur aterako dira aurten, Larraintzarrera joateko. Beraz, aurten bezala datorren urtean ere, osotara, 35 ikasle izatea aurreikusten du zuzendaritzak.

SOLICITUDES NUEVAS EN LAS ESCUELAS DE BASABURUA

Ya finalizado el plazo de prematriculación en las escuelas de Basaburua, tanto en la escuela infantil Ttikiena como en la de primaria, Oihanabal, han registrado nuevas solicitudes. En Ttikiena están contentas ya que son doce las nuevas solicitudes. Calculan que empezarán el curso con entre doce o catorce niños y niñas; y que llegarán a ser entre dieciséis y dieciocho. En Oihanabal, por su parte, son cuatro las nuevas prematriculaciones. Cuatro son también los alumnos y alumnas de sexto que dejarán la escuela para pasar a secundaria en Larraintzar. Por tanto se prevé que al igual que este curso sean 35 el total de alumnas el curso que viene.

EGUNeko ZENTRO BERRIAN, ATE IREKIAK

Ekainaren 22an izanen dira, zaharberritutako Sasturain etxearen, 12:00etan; Ondoren, otamena ere eskainiko da. Basaburuko Udalak Txokolateroren etxearen egindako zaharberritze lanak amaitu berri ditu, eguneko zentro gisa prestatzeko. Lanen emaitza erakusteko jardunaldira herritar oro gonbidatua dago. Lanak Cota enpresak egin ditu. Eguneko zentroarekin batera, jubiloteca, sukaldea eta jantokia prestatu dituzte lehenengo fase honetan eta Udalak 200.000 euro jaso ditu Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan onartutako zuzenketa baten bidez. Osotara 251.500 euroko kostua izan du obrak.

PUERTAS ABIERTAS EN EL NUEVO CENTRO DE DÍA

Serán el 22 de junio, en la rehabilitada casa Sasturain, a las 12:00. Después se ofrecerá un almuerzo. El Ayuntamiento de Basaburua ha terminado recientemente las obras de rehabilitación de la casa de Txokolatero. Quiere convertirlo en un centro de día y todas las vecinas y vecinos estáis invitados a ver el resultado de los trabajos que ha realizado la empresa Cota. En esta primera fase, junto con el centro de día, se han habilitado una jubiloteca, una cocina y el comedor. El Ayuntamiento ha recibido 200.000 euros gracias una modificación presupuestaria aprobada por el Gobierno de Navarra, destinada a financiar la obra de 251.500 euros.

- **BASABURUKO EGUNA, BERUETE**
- **SEGA TXAPELKETAKO
KANPORAKETA, ETXALEKU**
- **AIZAROZKO PESTAK**
- **ARRARASKO PESTAK**



ARTILEA JASOTZEKO EDUKIONTZIA

Basaburuko Udalak ardi-artilea jasotzeko edukiontzia jarri du, Jauntsaratsen, eskola parean. Urtero gisa, artilea garbia egon beharko du, zaku, soka edo antzekorik gabe. Artilea botatzeko hitzordua eskatu behar da 948503035 telefono zenbakira deituz, astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 14.00tara. Artzairen erroldaren arabera 0,25 euro kobraztuko da ardi buru bakoitzeko.

RECOGIDA DE LA LANA DE OVEJA

El Ayuntamiento de Basaburua ha colocado un contenedor para recoger la lana de oveja, en Jauntsarats, frente a la escuela. Como todos los años, se debe depositar la lana limpia, sin saco, cuerdas ni nada del estilo. Para tirar la lana se debe pedir cita llamando al 948503035, de lunes a viernes, entre las 9:00 y las 14:00 horas. Según el censo del ganadero, se cobrará 0,25 euros por cada cabeza.

1	2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

SEGA TXAPELKETA, EKAINAREN 14AN

Almitza Sega Elkarteak Basaburuko eta Imotzko kirol batzordearen laguntzarekin antolatua, Euskal Herriko azkartasun sega ligaxkaren bigarren saioa Etxalekun (Imotz) izanen da ekainaren 14an. Jardunaldieta bat urtero izaten da gurean, Basaburuan edo Imotzen, txandaka. Lehenengoa Goiatzen eta hirugarrena Hernanin izanen dira. Sailkapen orokorraren arabera Bavarian (Alemania) jokatuko den Europako Sega Txapelketako euskal ordezkariak erabakiko dira.



EL CAMPEONATO DE SEGA, EL 14 DE JUNIO

Organizado por la Asociación de Sega Almitza, con la ayuda de la Comisión de Deportes de Basaburua e Imotz, el 14 de junio se llevará acabo en Etxaleku (Imotz) la segunda jornada de la liguilla del Campeonato de Sega de Euskal Herria. Una de las fases siempre se lleva acabo en nuestra comarca, en Basaburua o Imotz, según el turno. La primera jornada fue en Goiatz y la tercera en Hernani. Según la clasificación general se decidirán los representantes vascos para el Campeonato Europeo de Sega que se jugará en Baviera (Alemania).